



2023 memoria



hernani burujabe 2023 memoria

hitzaurrea

elikadura

energia

zaintza

telekomunikazioak

bioaniztasuna

ekhi

lana

gobernu arkitektura berria

sentsibilizazioa eta dibulgazioa





hitzaurrea


Hernani Burujabe Trantsizio Ekosoziala helburu duen herri proiektu bat da, eta horretarako, herriko ehun ekonomiko, soziala eta administratiboa barnebiltzen ditu elkarlanean oinarritzen den prozesu demokratikoaren baitan.

Egungo eredu ekonomiko xahutzaile, jasangaitzaren aurrean, alternatiba bizigarri, iraunkor eta parekide bat martxan jarri nahi du Hernani Burujabek, justizia soziala eta ekologikoa eta planifikazio eredu publiko-ekonomiko-komunitarioa ardatz hartuta.

Hernanin martxan den egitasmoak burujabetza materialetan sakontzea du helburu eta bide, estrategikoak diren sektore sozioekonomikoen demokratizazioaren bidez, eredu ekonomikoa bizitzaren hedapenaren mesedetan jarriz eta merkatu logiketatik askatuz.

Hernani Burujabe abiatu zenetik ez dira 3 urte pasa baina jada hasi da sektorez sektore proiektuak martxan jartzen, emaitzak jasotzen eta Hernaniarren eguneroko bizitzetan inpaktua izaten.

Jarraian, bada, 2023an zehar martxan jarritako proiektuen eta horiek jasotako emaitzen inguruko informazioa ikusi ahalko duzue sektorez sektore.



elikadura

herrilur

2024ak Herrilur dendaren kontsolidazioa ekarri du. 142 bazkide gara jada eta eskaintzen dugun produktu aukera geroz eta handiagoa da, beti bezala, bertako produktuari lehentasuna ematen. Gainera, sentsibilizaziorako hamaika ekimen antolatu ditugu: tailerrak, bakarrizketa, ardo katak, etxaldetara bixitak... Bertatik-en tupper zerbitzuaren jasotze puntua ere bada Herrilur.

henase

Hernaniko nekazari eta abeltzainen sustapenerako elkarte Hernnaiko ekoizleek osatzen dugu eta lehen sektorearen gainbeherari aurre egiteko sortu genuen. HENASE arduratzen da bertako produktuak gure saltokietara zein sukalde zentralera helarazteaz, eta ekoizleok ditugun behar administratibo, eta teknikoak asebetetzeaz, udalak eskaintzen dituen diru laguntzen eskaerak esaterako.

nekazal eskola

2023an zehar nekazal eskolako lehenengo edizioa egin dugu, bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako formakuntza eskaintza. Burujabetzen Etxean formazio teorikoa eta Insusadi baserrian formazio praktikoa eskaini dugu.

29 pertsonak eman dute izena eta egin dute formazio egunen bat, baino hezkuntza reglatua ez denez, eta pertsona gehienek arraigoa lortzeko beharra zuten (formakuntza honek ez die eskaintzen) askok bertan behera utzi dute eta ez dute formakuntza bukatu.

6 ikaslek bukatu dute formazioa eta horietatik 4k planteatu ziren helburuak lortu dituzte eta 2k partzialki lortu dituzte

5 ikaslek erremuneratuako praktikak egin dituzte HENASE-ko etxaldeetan. Ikasleetako batek 6 hilabetetako kontratua lortu zuen HENASE-n eta ondoren Aiako txekorren ikuilu batean lortu du lana.

Beste batek aurrekontratua lortu du Karabelekon, eta Atzerritartasun sailak esango duenaren zain dago lanean hasi ahal izateko. Kontratu honen bidez bere egoera erregulariztauko du errotze sozialaren bidez.

Beste bat Karabelekon hasi da lanean laneratze programa baten baitan.

Beste bati basolana egiten duen enpresa batean eskaini zaio lana baino ez du onartu formatzen jarraitzeko. Partzialki lortu dira planteatutako helburuak kasu honetan.

Programa dual formatibo-praktikoa eskaintzen zaio, eta honekin bere egoera erregularizatzen du formakuntzaren errotze-sozialaren bidez. Helburua osoki bete du.

Beste baten egoerak juridikoak ez dio lana lortzea ahalbidetzen, eta ondorioz Eusko Jaurlaritzaren Trapezistak programan eman du izena eta etxe batean plaza bat lortu du. Helburuak partzialki lortu ditu.

praktikaldiak

Nekazal eskolan ikasketak egiten aritu diren gazteek Henaseko etxaldeetan egin dituzte praktikak, baserri munduan murgiltzen joateko. Nekazaritza zein abeltzaintza alorrean aritu dira praktikaldiak egiten. Guztira, bost etxalde ezberdin ezagutu dituzte, bakoitzaren errealitateak ikusi eta lan egiteko modu ezberdinak esperimentatuz.

Horietaz gain Hernaniko ekoizleei laguntza kolpe bat eskani zaie lan gehien duten momentuetan.

sukalde zentrala eta eraldaketa gunea

Hernaniko Sukalde Zentrala eta eraldaketa gunea 2023ko irailetik dago martxan. Hala ere, aurretiaz lan asko egin behar izan dugu (inbertsioak, garbiketa, egokitzapenak, gremioen kontratazioa eta kudeaketa...). Espazioa guztiz eraldatu behar izan dugu.

Hala ere, irailean jarduera ekonomikoa martxan jartzea lortu dugu eta gaur egun bi zerbitzu lerro ditugu martxan Bertatik-ek: Bertako Tupper zerbitzua eta Elikagaien eraldaketa zerbitzua

Egitasmo honen helburu nagusienetako bat enplegu aukerak sortzea da gizarte bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratze: 6 pertsona daude zuzenean kontratatutak BERTATIKen. 3 lanpostu konbentzionaletan eta 3 gizarteratze eta laneratze lanpostuetan.

Bestalde, banaketa zerbitzu kolektiboa ere jarri dugu martxan BERTATIKetik. Gizarteratze eta laneratze lanpostu bat bideratu dugu zerbitzu honen kudeaketarako, furgoneta isotermiko bat erosi dugu eta elikadura sistema osatzen dugun eragile ezberdinek erabili dugu zerbitzu hau.



elikadura

elikaduraren balio kate osoan eragin, bertako eta kalitatezko produktua herritar guztientzako eskuragarri bilakatu

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaia funtzionamendu eta osaketa egokia du



Sektorearen plan estrategikoa dago eta eguneratuta dago



Hernani Burujabeko koordinazio eta gobernu espazioetan sektoreko ordezkari dago



plan estrategikoaren jarraipena

Nekazaritza ustiaketak

9 ustiaketa
54 Ha

Herrilur fakturazio totala / bertako produktuan fakturazioa

212.000€
% 40

Transformazio gunearen fakturazioa / bertako produktua

58.000€
3.650 kg

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

557.000 €

Langile kopurua

9

Herritar bazkideak

142

zehar lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara

Emakumeen parte hartzea mahai sektorialean

%50

Inserzio sozio-laboraleko langileak Erregularizatutako langileak

6
2

energia

enherkom

Enherkom Hernaniko Energia Komunitatearentzat 2023 urtea oso garrantzitsua izan da. Kooperatiba 2022an sortu eta urte horretan proiektuaren lehen oinarriak ipintzen hasi ondoren, 2023a lehen energia instalazioa martxan jartzeko eta efizientzia energetikorako lehen zerbitzuak eskaintzen hasteko urtea izan da.

Kooperatibaren egitura formalak egonkortu ditugu eta baliabide propioak gureganatu eta osatu ditugu: kooperatibako 2 langile kontratatu ditugu; erabaki-organoetan kontseilu errektorea osatu dugu eta lantaldeekin lotuko diren egitura informala gauzatu dugu.

Kudeaketa administratiboa eta kontablea eman dugu baliabide propioekin.

Lantaldeen funtzionamendua egonkortu egin dugu eta dokumentuen kudeaketarako aplikatiboa martxan jarri dugu.

Hainbat aliantza garatu ditugu eta 2023ko maiatzean I.Batzar Orokorra egin genuen.

autokontsumo kolektiboko ekoizpen proiektuak

Zubipe: Energia jasoko duen 87 onuradun izango dira. Tramitazioa egina dago eta 2024ko martxoa aurretik onuradunek Zubipetik energia jasoko dute.

Udal eraikinak: 2024ean beste udal eraikin batean instalakuntza fotovoltaiko partekatu bat ezartzeko lanaketak egin ditugu.

Enpresetan: Bertatik Elikatuz, S.L. eta Izar Mekanizatuak, S.L. enpresak duten teilatu komunean, 96kW-tako instalakuntza bat egitko adostasunerara iritsi gara. Bestalde, beste 9 enpresei bideragarritasun azterketa bat egingo diegu 2024ean instalakuntzak egiteko asmoarekin.

energia bulegoa eta aholkularitza zerbitzuak

Energia bulegoa: 444 kontsulta artatu ditugu eta jasotako aholkuekin egindako onurak 300.000,00€ tan baloratu da.

Merkatarien aholkularitza: 9 merkatari energia aholkularitza azterketa bat egin diegu. Bakoitzari txosten bat banatu diegu beraien egoera energetikoen berri emanez eta egin ditzaketan hobekuntzak azalduz. Beste merkatariak energia fakturen inguruko formazio batean parte hartzeko aukera izan dute. Aholkularitza eta formaziotik aterako diren onurak aurrezpenetan 18.000 eurotan baloratu da.

Bazkideei eraginkortasun aholkularitza eskaintzeko beharrezko finantziarioaren lanaketak egin ditugu.


Enpresa txiki eta ertainentzako eraginkortasun aholkularitza zerbitzua eta Karbono aztarna neurtzeko zerbitzua diseinatu dugu eta 2024-ean zerbitzu hau kontratatzeko aukera emango diegu enpresei.

Formazio eskaintza: Herriko hezkuntza eragileei energiaren inguruko formazioa jasotzeko aukera zabaldu diegu. Hernaniko Lanbide Heziketak jasoko du lehenengo formazio saioa.

Fakturen tailerrak Zumaian eta Zestoan eman ditugu.

Energia bulegoak sortzeko beharrezkoa den langileen formakuntza eman diegu Hernanin eta Elorri.

Pobrezia energetikoa: Hernaniko udaleko gizarte zerbitzuekin pobrezia energetikoa saihesteko balioko duen proiektu bat diseinatzea adostu dugu.



energia

herriek, komunitateek eta herrialdeek beren energia eta lurralde politika propioak definitzeko eskubidea da, modu ekologikoki, sozialki, ekonomikoki eta kulturalki egokiak erabiliz

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaia funtzionamendu eta osaketa egokia du



Sektorearen plan estrategikoa dago eta eguneratuta dago



Hernani Burujabeko koordinazio eta gobernu espazioetan sektoreko ordezkaritza dago



plan estrategikoaren jarraipena

Instalatutako KW kopurua

56

Aurreztutakoa energian

387.000 €

Energia bulegoa
Artatutako pertsona kopurua

444

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

725.000 €

Langile kopurua

2

Herritar bazkideak

219

zehar lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara

Emakumeen parte hartzea mahai sektorialean

%10

Inserzio sozio-laboraleko langileak

-

zaintza

zaintza talde herritarra

Zaintza taldean ekintzara salto egin dugu, eta 2023an Hernanin presentzia izan dugu. Berebiziko garrantzia izan du horrek; izan ere, ordura arteko ibibidearen berri eman dugu eta aurkeztu ditugu datozen urteotarako aurreikusi ditugun egitasmoak eta horri guztiari txapela jartzen dion manifestua. Hausnarketa talde bat izatetik, lortu dugu ekintzarako taldea garela sentitzea.

Zaintza eguna aurrera ateratzea izan da gure helburu nagusia epealdi honetan. Taldea indartu eta kohesionatzeaz gain, herriko zaintzaile nagusi askorekin harremana sustatu dugu, eta sentitu dugu horrelako talde bat egoteak arnasa eman diela. Gainera, pixkanaka lortzen ari gara Auzozaintza egitasmoa gure jardueran txertatzea, eta taldetik eremu komunitarioa bultzatzeko bitartekoak jartzea.

zaintza eguna

Zaintza taldeko lehentasuna izan zen maiatzaren 13rako Zaintza Eguna antolatzea, eta ordurarte egindako ibilbidearen berri ematea herri osoari. Horretarako, hiru lan talde osatu genituen: lehenengoa zaintzaile profesionalen egoeraren inguruko berri emateko taldea, bigarrena alor komunitarioa lantzeko taldea, eta azkena zaintzaile afektiboen egoeraren berri emateko taldea. Talde bakoitzak bere proposamenak landu zituen, eta ondoren guztion artean egunari forma eman genion.

Egun zoragarria atera zenn. Zaintzaile profesionalen egoera salatzeko kale ekimena egin genuen, aurretik Emagin Elkartearekin batera egin zen diagnostikoan ateratako ondorioak oinarri hartuta. Ondoren zaintza komunitarioaren garrantziaz eta herritarren inplikazioaren

beharrak jarduteko mahai ingurua egin genuen, eta bertan auzoetako protagonistak izan genituen. Azkenik orotariko zaintzaileei ahotsa emateko plaza antolatu genuen. Musikaz, ilustrazioz eta bertsoz lagunduta entzun ahal izan genuen zaintzaren alderik gordinena, zamatsuena eta baliotsuena.

auzozaintza

2022an Auzozaintza martxan jarri genuen eta 2023an zehar, bakardade arriskuan dauden adinekoen bizi kalitatea hobetzeko honako ekintza hauek egin ditugu:

- Identifikazioak: menpekotasun baxua duten 80 urtetik gorako eta bakarrik bizi diren adineko guztiarekin harremanetan jarri gara bere egoeraren berri izateko. 237 pertsona guztira
- Banakako akonpainamenduak: Adinekoak dituen preokupazio, behar eta desirak kontuan hartuta bere egoera hobetzeko aldaketak egiten lagundu diegu. Akonpainamendu hauek astero edo hamabosteroko aldizkakotasuna dutelarik. 17 banakako proiektu soziohezitzaile martxan daude 2023 bukaeran.
- Familiaz harago sozializatzeko topaguneak. 6 topagune eta 53 parte hartzaile egonkor guztira.
- Adinekoen komunitatean parte hartze aktiboa errazteko ekintzak: festetan parte hartuz, auzoen hobekuntzarako prozesuetan parte hartuz, adinekoak sentsibilizazio ekimen edo mahai inguruetan parte-hartuz...

Lehenengo urtean hasitako 7 auzo (Portu, Zikuñaga, Elizatxo, Etxeberri, Bestizan, Florida eta Sagastialde) horietaz gain, 2023an egitasmoa beste hiru auzoetan hedatu dugu: Kaxko-erdigune, Antziola eta Karabel.



zaintza

zaintzen demokratizazioa bilatuko duen zaintza sistema eraiki eta zaintza lanak eskaintzen dituzten lagileen lan baldintzak duintzeko prozesua

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaia funtzionamendu eta osaketa egokia du



Sektorearen plan estrategikoa dago eta eguneratuta dago



Hernani Burujabeko koordinazio eta gobernu espazioetan sektoreko ordezkaritza dago



plan estrategikoaren jarraipena

Auzoza-zaintza
Kontaktatutako adinekoak
Banakako akonpaimenduak

237
117

Bidelagun kopurua
Auzo kopurua

5
9

Sentbilizazio ekimenak

53

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

206.000 €

Langile kopurua

7

Herritar bazkideak

8

zehar lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara

Emakumeen parte hartzea mahai sektorialean

%60

Inserzio sozio-laboraleko langileak
Erregularizatutako langileak

5
1

telekomunikazioak

landa lurren konexioa

4 erabiltzailetik 19 erabiltzailera igo gara (5 zuntz optikoarekin ari dira Interneta jasotzen eta 14 irrati-lotura bidez). Martindegi auzoan zuntz optiko sare txikia hedatu dugu, eta Santa Barbarako antena baliatuta Hernaniko landa-auzoetara Internet seinalea eraman dugu, hala nola, Jauregi bailarara, Antziolara edo Martindegira.

alde zaharreko zuntz optikoa

Alde zaharreko zuntz optikoko sarea hedatzeko proiektua aurkeztu eta exekutatzeko hasi gara, lehen fasea amaitzear dagoelarik. Lehen fasearekin, Hernaniko alde zaharreko etxebizitza eta komertzioen ia erdia estaltzea espero dugu, zuntz optikoa jartzeko aukera izan dezaten.

sentsibilizazio ekimenak

Bi hitzaldi antolatu ditugu udal-aretoan:

- Bata operadore handien gehiegikeriei buruzkoa, tokiko hiru operadoreren partehartzearekin (Izarkom, Onaro eta Gastecom) eta sare libreak hedatzen aritutako herritar batekin.
- Eta bestetik, teknologian eta sare sozialetan aditua den Telmo Lazkano eta Maitane Ormazabal psikologoarekin "Teknologiaren erabilpen arduratsuari buruzko hitzaldia".

Horrez gain, Burujabetzen astean ere hainbat mintegitan parte hartu genuen, eta larunbat goizean zehar Gudarien plazan ezarri genuen postutxoan Telekomunikazio Burujabetzari buruz solasean aritu ginen hernaniarrekin.



telekomu- nikazioak

arrakala teknologikoarekin bukatu eta interneterako eskubidearen unibertsalizazioa bermatzeko ezinbesteko pausoa ematea

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaia funtzionamendu eta osaketa egokia du

-

Sektorearen plan estrategikoa dago eta eguneratuta dago



Hernani Burujabeko koordinazio eta gobernu espazioetan sektoreko ordezkariak dago

-

plan estrategikoaren jarraipena

Azpiegitura publiko-komunitarioen erabiltzaileak

19

Arrakala digitalagatik emandako dirulaguntza kopurua

9

Sentsibilizazio ekimenak

3

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

80.000 €

Langile kopurua

-

Herritar bazkideak

-

zehar lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara

Emakumeen parte hartzea mahai sektorialean

%20

Inserzio sozio-laboraleko langileak

-

biodibertsitatea

sagarreta

2022 urtean lanean hasi ondoren, 2023. urtean elkarte eratu eta Udalaren Intereserako Elkarteen Erregistroan inskribatu genuen. Baita ere bazkideza abiatu dugu (15 bazkide ditugu). Lantaldea egonkortu dugu, eta 10 pertsona inguru bileretan parte hartzen ari gara modu iraunkorrean eta ekintza puntualetan 25 - 30 pertsona inguru bildu ohi ditugu.

baso lurren publifikazioa

Hernaniko udalak 2023an lurra erosteko deialdi publikoa egin eta lursail batzuk erosi ditugu, guztira 69 hektarea inguru, handiena (61,9 Ha) Katamotzarri izenekoa. Betalde Etxeberri gainaldean beste terreno bat eskuratu dugu. Mahai sektorialean ari gara lantzen Sagarretak lur hau kudeatzeko lurraren lagapen hitzarmena.

hazitegia

Lur publiko horietan garatu nahi dugun bertako basoen proiekturako Hazitegi/Mintegia martxan jarri dugu. Iturrolan bertan jarri dugu mintegia martxan eta 3000 hazi inguru erein ditugu. Hazi horiek inguruetako basoetan bildu ditugu eta ondoren erein, auzolanean. 2024ko urtarrilean Hernaniko lehen hezkuntzako ikastetxe guztiak parte hartuko dute proiektu honetan eta mintegian lanean arituko dira goiz batez.

erreka garbiketak

2022 eta 2023ko irailean egin ditugu erreka garbiketak Urumean. Baso Biziak plataformakoekin batera antolatu ditugu eta Udalak azpiegiturarekin langundu du, 2023an 369 KG bildu ziren. 2024 urterako Urumea bailara osora zabaldu nahi dugu ekimena eta udal ezberdinekin lankidetzan egiten saiatuko gara.

sentsibilizazio ekimenak

2022 eta 2023 urteetan ingurumen jardunaldiak antolatu ditugu maiatza/ekainean. Ekimen ezberdinen bidez honako gaiak landu ditugu: basoak, ibaiak eta ura, ekofenimismoa, energia berriztagarriak, eolikoak, eukalptoaren eraginak.



bioaniz tasuna

herri lurak eta bioaniztasuna
berreskuratzeko politika publiko-
komunitarioak

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaia funtzionamendu eta
osaketa egokia du



Sektorearen plan estrategikoa
dago eta eguneratuta dago



Hernani Burujabeko koordinazio
eta gobernu espazioetan sektoreko
ordezkaritza dago



plan estrategikoaren jarraipena

Publifikatutako lur kopurua

69 Ha

Mintegi kopurua
Ereindako hazi kopurua

**1
2713**

Sentbilizazio ekimenak eta
auzolanak

11

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

- €

Herritar bazkideak

15

Bolondresak auzolanetan

60

zehar lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara

Emakumeen parte hartzea mahai
sektorialean

%57

Inserzio sozio-laboraleko langileak

-

ekhi

merkataritza: bazkideak eta hobariak

2023a ekhilurren erabileraren zabalkunde urtea izan da. Hobari sistema arrakastatsua izan da eta 175k€ erabiliaz, 1.85M € ko salmenta bolumena lortu dugu 115 saltoki eta 1200 erabiltzaile inguruko sare batekin.

Horretaz gain herriko elkarteak hurbiltzen hasi zaizkigu ekhilurrera eta 2023an ia 2500€ banatu ditugu herriko 8 elkarteren artean.

Merkatariek eta erabiltzaileek geroz eta konfidantza gehiago daukate sistemaren gainean. Azaroan egindako inkesta bateran ia 200 partehartzaileekin 9.06ko batezbesteko nota jarri zioten ekhilur sistemaren egokitasunari Hernaniko komertzio txikia sustatzeko.

ekhitaldia

Bi ekhitaldi egin ditugu, otsailean eta abenduan. Erabilitako formatoa aproposa ikusi da etorkizunerako eta orain arte merkatariei bideratu badiegu ere etorkizunean herritarrei bideratuko diegu.

2024ra begira ekhilurren batzar orokorra Hernanin antolatzea izango da erronka.



ekhi

ekimenean parte hartzen dutenen arteko zirkuitu ekonomiko itxia sortzea, ahalik eta herritar gehienak barnebilduz

gobernu ekosistema

Sektoreko mahaia funtzionamendu eta osaketa egokia du



Sektorearen plan estrategikoa dago eta eguneratuta dago



Hernani Burujabeko koordinazio eta gobernu espazioetan sektoreko ordezkari dago



plan estrategikoaren jarraipena

Erabiltzaile kopurua guztira /
Merkatari kopurua

1237
116

Masa monetarioa

152.527€

Salmentak guztira Ekhi-tan

1,85 M€

tokiko garapen burujabea

Aurrekontua

285.000 €

Langile kopurua

2

Herritar bazkideak

-

zehar lerroak

Erabiltzen diren hizkuntzak

euskara
gaztelera

Emakumeen parte hartzea mahai sektorialean

%50

Inserzio sozio-laboraleko langileak

-

lana

burujabetuz

10 pertsonetik eman zuten izena, denak Hernani Burujabeko eragileetan dihardutenak edo Iturolako parte direnak, batek ezik, ipuni kontalari bezela proiektu enpresarial bat berhartzeko proiektua zuena.

Horrenbestez ez da ia proiektu berririk martxan jarri, Ipuin kontalariarena ez bada.

Proiektu berririk egon ez denez, ez da akonpainamendurik egin iturolako ekintzaileen partetik.

iturola

Ordenantza kolektiboki landu da urtean zehar, baino batzordetik zuzenketak eta ekarpenak egin zitzaizkion eta oraindik onartzeke dago.

Horrenbestez ez da planteatzen den funtzionamendua aktibatu.

Haizur enpresa sartu da iturolan, eta Isladak irten da.

gobernu arkitektura berria

bidea

Bidean Herritarren Taldea indartzen eta honen inguruan sarea osatzen hasi gara. Herritar Taldetik Hernani Burujabe elikatzeko eta herritarrak prozesuan eta egunerokoan inplikatzeko dinamika abiatu dugu.

burujabetzen kontseilua

Burujabetzen Kontseiluaren nolakotasuna erabakitzeke parte hartze prozesua egin dugu, eta balizko eredu baten inguruko adostauna ihardetsi dugu.

2024ean zehar adostutako ereduak jarraituz proba pilotu bat egingo dugu ereduak funtzionatzen duen ikusteko eta beharrezkoak diren aldaketak egiteko. Helburua da, 2024ean, Hernaniko garapen sozioekonomikoa modu demokratiko eta uniberstalean erabakitzea ahalbidetuko duen egitura eta araudia adostua eta onartua edukitzea.

sentsibilizazioa eta dibulgazioa

burujabetza jardunaldiak

Bi egunetako jardunaldiak egon ziren urrian Udalbiltzarekin elkarlanean.

Markatutako helburu guztiak bete genituen:

- Euskal Herriko eskala eman eta udalen ordezkariak etortzea.
- Euskal Herrian dauden proiektuak ezagutu eta Hernaniko herritarrengana gerturatzea adibide gisara.
- Hernani Burujaberaren erreferentzialtasuna (Hernani bertan eta Euskal Herrian) handitzea.

hernani burujabe aldizkaria

2023an bi zenbaki osatu, inprimatu eta banatu dira, bata maiatzean eta bestea azaroan.

Aldizkariaren helburua da Hernani Burujaberaren baitan dagoen informazioa gizarteratzea, Hernaniko etxebizitza eta familia guztietara helaraziz.

Azaroko zenbakia Burujabetza Jardunaldien monografikoa izan zen. Hau da, jardunaldi horiek eman dutena laburbiltzen zuen zenbakiak.

eragileak

bidea

aurrekontua
(koordinazioa eta komunikazioa)

92.000 €

antolaketa espazioak

**udal koordinazioa
burujabetzen foroa
hernani burujabe batzarra**

sentsibilizazio ekimen kopurua

4



etxebizitza
HERNANI BAZKARREAN

lana
HERNANI BAZKARREAN

merkataritza
HERNANI BAZKARREAN

energia
HERNANI BAZKARREAN

zaintza
HERNANI BAZKARREAN

hernani
HERNANI BAZKARREAN

bioaniztasuna
HERNANI BAZKARREAN

telekomunikazioak
HERNANI BAZKARREAN

kultura
HERNANI BAZKARREAN

hernani
HERNANI BAZKARREAN

aurrera begira

Hemen jasotakoa, bidearen hasiera besterik ez da izan. Justizia soziala, jasangarritasuna eta berdintasunaren bidean, asko dago egiteke oraindik. Hurrengo urteotako erronka nagusia Hernani Burujabe zabaltzea izango da, Hernaniar

ahalik eta gehienen inplikazioa lortu eta eguneroko bizitzak bizigarriago egitea; eskala txikian marraztutako proiektua hedatzea eta Hernanitik, Euskal Herritik, mundu hobearen eraikitzeko gure ahaletxoak jartzen jarraitzea.



hernani
burujabe